

TOKIKO EREMUAN HAUR ETA NERABEEN DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK EGITEKO GIDA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
AURKEZPENA.....	3
NORENTZAT ETA ZERTARAKO BALIO DU GIDA HONEK?	4
GIDA HAU NOLA ERABILI?	5
ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HAUR ETA NERABEEN TOKIKO DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK SUSTATZEA ? .	6
ZER BEHAR DUT ABIAN JARTZEKO?.....	7
NOLA EGIN HAUR ETA NERABEEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA?	10
1. fasea. Diseinua: Nori galdetuko diot? Zer tresnarekin? Noiz?.....	12
2. fasea. Informazioa biltzea: Haur eta nerabeen errealitatearen zer alderdi izan behar ditut kontuan? Nola jasoko dut informazioa?	17
3. fasea. Txosten diagnostikoaren azterketa eta prestaketa. Nola hautatu eta antolatu behar da txostenera bideratzeko informazioa? Nola egin behar da txostena?.....	24
NOLA EGIN HAUR ETA NERABEEN TOKIKO PLANA?	28
1. fasea. Printzipioak, ikuspegiak eta helburuak zein dira? Zer ekarpen egiten dute?.....	30
2. fasea. Jarduketen plangintza Zer jarduketa sartu behar dira HNTpN? Nola ordenatu behar dira?.....	34
3. fasea. Plana idatzi, onartu eta hedatzea, Zer egitura du? Nola onartzen da plana? Nola zabaldu?	38
4. fasea. Jarraipena eta ebaluazioa Nork hartzen du parte? Jarraipena nola egin? Eta HNTpNren amaierako ebaluazioa?	40
DIAGNOSTIKOA ETA PLANA NOLA KOMUNIKATU BEHAR DIRA?.....	45
ZER BALIABIDE INTERESGARRI KONTSULTA DITZAKET?	48
ERANSKINAK.....	51
1. Informazioa biltzeko teknika kuantitatibo eta kualitatiboen teknika nagusiak:.....	51
2. Informazio diagnostikoa biltzeko plangintza-matrizea	52
3. Diagnostikoaren adierazleak dimentsioen eta datu-iturri nagusien arabera.	54
4. Bigarren mailako iturriak kontsultatzeko baliabideak:	56
5. Informazioa biltzeko teknikak ezartzeko ereduak eta adibideak.....	57
5.A Inkesta.....	57
5.B Eztabaida-taldeak.....	58
5.C Elkarriketa.....	59
5.D Tailerrak	59
6. Informazioa biltzeko prozesuetan haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko baliabide gehigarria...	61

AURKEZPENA

Haur eta nerabeen ongizatea abian jartzen diren politika publikoen menpe dago eta **administrazio publikoen eta herritarren erantzukizuna da** elkarrekin lan egitea hori ahalbidetzen duten giza baldintzak, sozialak eta materialak sortzeko, eta Haurren Eskubideen Hitzarmenak (aurrerantzean, HEH) jasotzen dituen eskubideak erabat betetzea sustatzeko.

Zeregin horretarako ezinbestekoa da udal-politiken papera, haur eta nerabeen garapen osoan eragiteko potentziala dutelako. Horri dagokionez, HEH aplikatzeko neurri orokorreari buruzko 5. Ohar Orokorrak tokiko gobernuei dei egiten die **zaintzarako mekanismo iraunkorrak** ezar ditzaten, Hitzarmena errespetatu ahal izateko eta udalerriko haur eta nerabe guztiei ezartzeko inolako diskriminaziorik gabe.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritza hainbat proiektu ari da sustatzen Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) **tokiko politika eraldatzeko prozesuak sustatzeko**, eta helduen ikuspegian aldaketa eragiteko, gobernantza inklusiboagoa izateko, eragileen arteko koordinazio handiagoa izateko, eta haur eta nerabeentzako erabakiak hartzeko eta ahaldunderako espazio berriak sortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018-2022 aldirako **familiei laguntzeko erakundearen arteko IV. Planaren** jarduketan barruan dago “haurrek parte hartzeko mekanismoak sortzea” (14. helburua, 86. jarduketa), “familien, haurren eta nerabeen planak eta tokiko mahaiak egitea eta abian jartzea” (17. helburua, 109. jarduketa) eta “tokiko eremuan haur eta nerabeen eta familien egoerari buruzko diagnostikoak egitea” (18. helburua, 113. jarduketa).

Gida honekin EAEko **tokiko gobernuetako arduradun politiko eta tekniko**en eta **lotutako beste erakunde eta eragileen** eskura jarriko da haur eta nerabeen politikak sustatzeko urrats berriak egiten lagunduko duen tresna. Zehatzago, gidak jarraibide zehatzak eskaintzen ditu **haurren eta nerabeentzako tokiko diagnostikoa eta plana egiteko**, haur eta nerabeen tokiko politikan eskubideen zeharkako ikuspegia txertatuta.

Arreta berezia jarri da adinarean, generoaren, dibertsitate funtzionalaren, jatorriaren eta abarren inguruan kolektiboaren aniztasunarekiko sentikorrak diren diagnostikoak eta planak egitea ahalbidetuko duten jarraibideak emateko, haur eta nerabe guztien aniztasunaren, diskriminaziorik ezaren eta aukeraberdintasunaren inguruan **HEHk dituen eskubideak** kontuan hartuta (2. eta 6. art.).

Halaber, haurren parte-hartzea eskubidea (HEHren 12. art.) eta beren bizitzari zein komunitateari eragiten dieten erabakiak partekatzea eta sozializatzea dakarren erantzukizuna dela jakinda, prozesu horiek martxan jartzeko garaian **haurren eta nerabeen parte-hartzearen ikuspegia** txertatzeko aukera desberdinetan jarri da fokua.

NORENTZAT ETA ZERTARAKO BALIO DU GIDA HONEK?

Gida tokiko eremutik haur eta nerabeen aldeko politika publikoak diseinatzen eta ezartzen jarduten duten **arduradun politikoei eta teknikariei** dago zuzenduta batik bat, baina politika horien sustapenarekin lotura duten beste erakunde eta eragile batzuentzat ere lagungarria izan daiteke. Gida honekin Tokiko Gobernuari lagundu nahi zaie tokiko diagnostikoak eta planak modu parte-hartzailean egiten, **udalerriko haur eta nerabeak erdigunean jartzeko**.

Erabilgarria izan daiteke bai lehen aldiz halako diagnostikoak eta planak egin behar dituztenentzat, bai dagoeneko eginda izan eta berrikusi eta hobetu nahi dituztenentzat, berezko baliabideekin edo kanpoko erakunde aditu baten bitartez.

Haur eta nerabeei buruzko tokiko diagnostikoa eta plana egiteko **urrats edo jarduketa nagusiak** modu erraz eta ordenatuan ezagutarazteko xedearekin egin da.

Gainera, tresna eta esperientzia praktikoen jarraibide eta **adibide zehatzak** eskaintzen ditu, eta **inspirazio- zein motibazio-iturri** izan daiteke.

Gida honen helburua Tokiko Gobernuari haur eta nerabeen diagnostikoak eta planak modu parte-hartzailean egiten laguntzea da. Erabilgarria da haur eta nerabeen eskubideak betetzeko konpromisoa duten guztientzat.

Tokiko diagnostikoak eta planak udalerrri bakoitzaren testuinguruak eta idiosinkrasiak eta tokiko erakunde bakoitzaren funtzionamenduak baldintzatutako prozesu bakarrak diren uste osoa dugu. Horregatik, **erabakiak hartzeko** prozesuan arduradun politikoei eta udal-teknikariei laguntzea azpimarratzen da: Zer diagnostiko edo plan mota nahi dut? Zer aukera desberdin baloratu ditzaket? Zer abantaila eta desabantaila ditu aukera bakoitzak? Zer izan behar dut kontuan?

Funtsezkoa da baita ere prozesu parte-hartzaile gisa ulertzea. Gida honetan jasotzen diren jarraibide eta urrats guztiek dute ikuspegi hori, hala, haur eta nerabeen **parte-hartze aktiboa** sustatzeko gakoak eta dinamika zehatzak aurki daitezke, eta baita udaleko sail guztiek eta inguruko beste eragileek parte hartzeko gomendioak ere, guztien jarduerak baitu eragina haur eta nerabeen ongizatean, hein handiagoan edo txikiagoan bada ere.

Hortaz, erraz kudeatzeko baliabidea da eta urrats bakoitzarekin tresna desberdinetarako sarbidea errazten du. Gida pentsatuta dago askotariko beharrak eta baliabideen eskuragarritasuna duten udalentsako erabilgarriak izan daitezen, horregatik askotariko aukerak ditu eta **garapen eta konplexutasun maila** desberdinak dituzten diagnostikoak eta planak egiteko ibilbideak eskaintzen ditu.

GIDA HAU NOLA ERABILI?

Gida hau haur eta nerabeei buruzko diagnostiko bat eta tokiko plan bat egiteko ibilbidea erraz identifikatzeko egituratu da. Gainera, **tamaina txikiko edo handiagoko udalerrientzako eta baliabideentzako orientabide zehatzak jasotzen dira**, udal teknikariek horiek abian jartzea eta prestatzea errazteko.

Hurrengo ataletan puntu hauek ezagutuko dituzu:

- **Zergatik da garrantzitsua haur eta nerabeen tokiko diagnostikoak eta planak sustatzea?** Halako ekimenak sustatzerakoan udalerriak dituen onurak zehatzen ditu.
- **Zer behar dut abian jartzeko?** Lidergoa ezartzeko eta barne-koordinazioa artikulatzeko, eskuragarri dauden baliabideak ustiatzeko eta inguruko beste eragileekin aliantzak sortzeko jarraibideak azaltzen dira.
- **Nola egin haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa?** Haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa nola diseinatu, informazioa nola bildu, aztertu eta emaitzak aurkeztu erakusten du.
- **Nola egin haur eta nerabeei buruzko plana?** Plan batek zer printzipio, ikuspegi eta helburu izan behar dituen erakusten da, plana osatzen duten jarduerak nola planifikatu, informazioa nola egituratu, onartu, hedatu eta jarraipen- eta ebaluazio-prozesua nola egin.
- **Diagnostikoa eta plana nola komunikatu behar dira?** Herritarren artean diagnostikoa eta plana hedatzeko zer alderdi komunikatibo hedatu eta planifikatu behar diren.
- **Zer baliabide interesgarri kontsulta ditzaket?** Gida honetan aipatutako baliabideen laburpena egingo dugu.
- **Eranskinak.** Informazio gehigarria adibideekin eta ereduekin: plangintzaren matrizea, adierazleak, informazioa biltzeko teknikak, etab.

Gainera, azpiatal hauek sartu ditugu honako hauek azkar identifikatzeko:



Hainbat zeregin egiterakoan kontuan izan beharreko gomendioak eta gakoak.




Sakontzeko baliabide osagarrietarako sarbidea, adibide inspiratzaileak, etab.

Oharra: webguneetarako esteken *url* helbideak sartu ditugu, horrek kargatzeko arazoak eman ditzake.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HAUR ETA NERABEEN TOKIKO DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK SUSTATZEA ?

Tokiko gobernuak haur eta nerabeen eskubideak betetzeko duen konpromisoak **gobernantza-eredua aldatzea** dakar, eta trantsizioa helduarotik udalerriko haur eta nerabeekin hurbilago eta inklusiboago dagoen ikuspegi batera. Haur eta nerabeen tokiko diagnostikoak eta planak dira udalerriko haur eta nerabeen ongizatean esku hartzeko eta ongizatea hobetzeko ekintzak **bideratzeko eta artikulatzeko** aukera ematen duten tresnak.

Zehatzago, horien bitartez honako hau lor daiteke:



ZER BEHAR DUT ABIAN JARTZEKO?

Haurren eta nerabeen tokiko diagnostikoak eta planak abian jartzeko, lidergo argia eta barne-koordinazio ona behar dira, eskura dauden baliabideak aztertu behar dira, prozesuak aukeretara egokitzen direla ziurtatzeko, eta inguruko hainbat eragilerekin aliantzak egin behar dira.



LIDERGOA EZARTZEA ETA BARNEKO ARTIKULAZIOA GAUZATZEA:

Partekatutako lidergoaren bitartez soilik ezar daitezke zeharka tokiko erakunde osoan haur eta nerabeentzako politikak. Horregatik, prozesu horiek abian jarri aurretik, lehenik eta behin, beharrezkoa da lidergoa beregain hartuko duen taldea zehaztu eta aukeratzea, prozesuaren fase guztiak arrakastaz garatzeko.

Udalerri txikietan, errazagoa da alkatetzatik sustatzea. Udalerri ertain eta handietan, udal-egitura konplexuagoa da, eta komeni da lidergo hori udal barruan haur eta nerabeen arloan ibilbiderik handiena duen edo haur eta nerabeei zuzendutako proiektuak, ekintzak eta programa enblematikoak kudeatu dituen sailak hartzea (ohikoa da irizpide horiek hezkuntza, gizarte-ekintza, euskara, kultura eta gazteria sailak betetzea). Halaber, interesgarria izan daiteke hainbat arloren artean partekatutako lidergo-formulak aztertzea.

Lidergoa edo sustapena sail batek hartzen badu ere bere gain, ezinbestekoa da gainerako udal-arloen inplikazioa izatea. Kontuan izan behar da sail guztien jarduerak izan dezakeela eragina haur eta nerabeen ongizatean, hein handi edo txikiagoan. Politika horiek zeharkakoak egiteko udaleko sail guztiek kontuan hartu behar dute hainbat arlotan hartutako erabakiek eragina izan dezaketela haur eta nerabeengan eta inpaktu negatiboak ekidin behar dituzte. Horregatik, komeni da aldizkako topaketak antolatu eta sistematizatzea, ahalik eta sail gehienek parte har dezaten, informazioa trukatzeko, sinergiak aprobetxatzeko eta **ikuspegi kolaboratibotik lantzeko** (esaterako, udal-sailen edo antzekoen artean koordinaziorako mahaia eratu daiteke).

Nolanahi ere, prozesua gidatzen duen udaleko saila edo egitura edozein dela ere, komeni da proiektuak **udal-erakundeko gobernu-talde osoaren babesaz izatea**. Gainera, hauteskunde-zikloak eta gobernu-aldaketak gorabehera, haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia eta udalerriko haur eta nerabe guztientzako ingurune babeslea bermatu behar dira.



- ✓ Beharrezkoa bada, eraginkortasun handiagoa izateko, talde eragile txikiagoa ere sor daiteke, haur eta nerabeekin zuzeneko lotura duten jarduerak egiten dituzten udal-sailetako ordezkariekin eratutako mahaiarekin, maizago elkartzeko eta prozesuaren jarraipena egiteko.
- ✓ Gomendagarria da haur eta nerabeen politikekin loturarik handiena duten sailak prozesuaren hasieratik sartzea, eta pixkanaka gainerakoak batzen joatea.
- ✓ Koordinazio Mahai horiek abian jartzeko prozesua arakatzeko, *Tokiko eremuan haur eta nerabeen koordinaziorako espazioak ezartzeko gida* kontsulta daiteke: **ESTEKA**



AURREKO ESPERIENTZIAK ETA ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK AZTERTZEA:

Sarri, prozesu horiek **ez dira hutsetik hasten**, ziurrenik udaleko hainbat sailek une desberdinetan programak, ikerketak eta proiektuak abian jarri dituztelako, eta posible delako horietatik ikastea. Horregatik, prestaketa fase honetan, komenigarria da azken urteetan haur eta nerabeekin lotuta egin diren edo horiekin lotura izan dezaketen jarduera adierazgarrienak identifikatzea: Haur eta nerabeen iritzia ezagutzeko ikerketarik egin al da uneren batean? Zer nola jarduerak daude haur eta nerabeei bideratuta? Haur eta nerabeen parte hartzea sustatzen duten jarduerak al daude? Zein arduratzen da horiez eta zer laguntza izan ditu horiek garatzeko? Adibidez: Pertzepzioaren ikerketak edo haur eta nerabeei egindako inkestak, Eskolako Tokiko agenda 2030, Tokiko Kirol Plana, Tokiko Gazteria Plana, kontsulta-prozesuak edo haur eta nerabeekin egiteko jarduera zehatzak (azaroak 20), etab.

Aurreko jarduera horien berri izanda, egin nahi diren diagnostiko- eta plangintza-prozesuetarako erabilgarriak diren baliabideak, kontaktuak eta tresnak identifika daitezke.

Gainera, oso garrantzitsua da lidergoa hartzen duen sailak edo sailek prozesu horiek garatzeko dituzten **giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatzea eta kuantifikatzea**, elkarren artean lotuta dauden mota askotako ekintzen kopuru handia baitute: informazioa jaso eta sistematizatzekoak, plangintza egitekoak, dinamizatzekoak, etab. Azterketa hori lagungarria izan daiteke ekintzak udaleko langileek beren gain hartuko dituzten edo ekintza guztiak edo batzuk garatzeko kanpoko aholkularitza espezializatu baten laguntza kontratatuko den erabakitzeke.



- ✓ Udalerrriak **Haur eta Nerabeek Parte Hartzeko Organoa (HNPO) edo haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzen duten beste espazioak** baditu, funtsezkoa da zer ekimen landu diren eta espazio horietan parte hartu duten haur eta nerabeen ikuspegia zein izan den jakitea.
- ✓ Udalerrriak haur eta nerabeentzat zer plan, programa eta jarduketa egiten dituen identifikatzea ere oso erabilgarria da haur eta nerabeen errealitateari buruzko informazioa **diagnostikoa** egiteko prozesuan sartzeko.
- ✓ Prozesu horiek garatzeko kanpoko laguntza jasotzen den edo ez gorabehera, komeni da arduradun politikoei eta udaleko teknikariei **rol aktiboa** izatea prozesu osoan zehar, funtsezko ikuspegiak barneratzen direla eta etorkizuneko jasangarritasuna bermatzen dela ziurtatzeko.



INGURUKO ERAGILEEKIN ALIANTZAK SORTZEA:

Barne-mailan koordinazioa artikulatzeaz gain, interesgarria da prozesu horietan lankidetzan aritu daitezkeen **inguruko erakundeak eta eragile sozialak** identifikatzea, hala nola ikastetxeak, aisialdiko taldeak, elkarteak, sektore pribatua, beste erakunde batzuk, etab. Erakunde horiek hainbat ekintza garatzea errazteko **aliantzak** sor ditzakete. Esaterako, ikastetxeen laguntza izan daiteke inkesta bat egiteko eta haur eta nerabe askorengana iristeko; aisialdirako taldeekin eztabaida-taldeak eratzeke; gizarte-erakundeekin profesionalek ase gabeko behar batzuei zer irtenbide eman erabakitzeke duten ikuspegia jasotzeko, eta abar.

Gainera, haur eta nerabeentzako politika publikoen sustapenean ibilbiderik handiena duten udalerrien kasuan, erlazio horiek **eragile sozialen mahaia**ren bitartez formalizatzeko aukera balora daiteke, eta inguruko erakunde esanguratsuenetako batzuei eta udalarekin aliantzak dituztenei edo aliantzak izatea egokia direnei parte hartzeko gonbita egin. Mahaia aldizka bildu daiteke haur eta nerabeen aldeko jarduerari buruzko informazioa trukatzeko, eta, horretarako, identifikatzen doazen kezka komunekin bat egiten duten gai zehatzak jorratzea adostu daiteke.



- ✓ Zure udalerriak ez badu ibilbide handirik haur eta nerabeekin lan egiten duten erakunde sozialen espazio kolaboratzaileen instituzionalizazioan, hobe da hasieran ahaleginak **aliantzak sortzea** bideratzea ikastetxeekin, familiekin lan egiten duten elkarteekin, aisialdirako elkarteekin, kirol taldeekin, eta abar.
- ✓ Ez da ahaztu behar **beste udalerri batzuek** antzeko esperientzia izan dutela edo izaten ari direla. Udalerri horiekin harremana oso baliagarria izan daiteke ikasketak trukatzeko, zalantzak, lorpenak, etab.

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK SUSTATZEN DITUZTEN UDALERRIEN SAREAK

Haurrekin Adiskidetsuak diren Hiriak
<https://ciudadesamigas.org/>



HaurEkin
<https://www.haurrenhiria.eus/>



Gaztematika
<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/gazteria/gaztematika>



Oinherri
<http://herrihezitzailea.eus/>



NOLA EGIN HAUR ETA NERABEEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA?

Diagnostikoa egiteko egin beharreko urratsak **3 fase eta 7 urratsetan** multzoka daitezke:



Jardun aurretik, udalerriko haur eta nerabeen errealitatea zein den ezagutu behar da. Atal honek udaleko teknikariek haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa berezko baliabideekin egiteko jarraibide zehatzak eskaintzen ditu. Kanpoko kontratazioak egitea beharrezkoa den kasuetan, orri hauek ere inspirazio eta orientazio gisa lagungarriak izan daitezke, diagnostikoa egiteko prozesua zehazteko eta kontratazio-prozesuan islatzeko.

Udalerri bakoitzaren tamaina, baliabideak eta izaera edozein direla ere, diagnostikoa egiterakoan, haur eta nerabeen behar eta pertzepzioei buruzko informazioa gogoeta modura jasotzen da, **bizitza-kalitatea hobetzeko**.


Diagnostiko mota desberdinak daude. Batzuek **alderdi zehatzetan** jartzen dute fokua eta, esaterako, haur eta nerabeek egiten duten kirolean sakontzen dute; eragiten dieten pobrezia mailan; nerabezaroko berdintasun-erlazioetan, etab. Beste diagnostiko batzuek, aldiz, izaera osoagoa dute eta haur eta nerabeen bizitza-kalitateari eragiten dioten **dimentsio guztiei** buruzko informazioa bilatzen dute. HEHn ezarrita dauden haur eta nerabeen eskubideei egiten diete erreferentzia: familia, osasuna, pobrezia eta gizarte-bazterkeria, kirola, kultura, aisialdia eta denbora libre, mugikortasuna, hirigintza, parte-hartzea, etab.

Haur eta nerabeen zeharkako ikuspegitik tokiko planari laguntza egokia eman ahal izateko, beharrezkoa da diagnostikoak **dimentsio asko izatea**. Alde horretatik, gida hori erabilgarria izan daiteke baita beste diagnostiko mota bat egin nahi dutenentzat ere, deskribatzen diren urrats gehienak komunak baitira.

Egiten dugun pauso bakoitzeko, aukera asko zabalduko zaizkigu eta aukeratzen joateko aukera izango dugu. Aukera batzuek konplexutasun eta ardura handiagoa dakarte, baina gure lehenengo aldia bada, errazago beste batzuen alde ere egin dezakegu. Urrats bakoitzean ondo aukeratzeko, garrantzitsua da kontuan izatea zein baliabide ditugun, gure aurretiazko esperientzia, gure aliantzen indarra, etab.

1. fasea. Diseinua: Nori galdetuko diot? Zer tresnarekin? Noiz?

2 urrats egin behar dira diagnostikoa DISEINATZEKO:



Lehenik eta behin, datuak ateratzeko bi iturri mota bereizi behar dira eta beharrezkoa izango da horietara jotzea osagarri gisa:

- **Eskuragarri dauden datu-iturriak (bigarren mailako datuak)** dira diagnostikoa ez den beste helburu baterako aurretik jaso diren datuak, baina fidagarriak eta egokiak direnak: arloetako jardueren memoriak; estatistika-operazioak; beste lurralde bateko ikerketak eta txostenak.
- **Datu berriak (lehen mailako iturriak) lortzeko zuzeneko kontsultak** dira lehen eskuko informazioa eman dezaketenak, beste inork iragazi edo interpretatu ez dituenak. Iturri horiek kontsultatzeko diagnostikorako bereziki diseinatutako teknikak erabiliko dira, hala nola inkestak, elkarrizketak edo eztabaida-taldeak, eta hainbat helbururekin eta interes-talderekin aplikatu ahal izango dira.

Lehen eta bigarren mailako iturriak. Abantailak eta desabantailak.		
	Abantailak	Desabantailak
Eskuragarri dauden datuak	- Denbora gutxiago kontsumitzen dute eta datuak lortzeko aukera gehiago daude. - Batzuetan, lehen mailako iturrien bidez nekez lor daitekeen informazioa eskaintzen dute.	- Zehaztugabeak izan daitezke edo partzialki erantzun diagnostikoaren helburuei. - Eguneratu gabeko datuak izan daitezke edo ikerketaren muga geografikoa islatzen ez dutenak.
Datu berriak	- Zer aldagai neurtu eta nori zuzendu fidagarritasun eta zehaztasun handiagoarekin zehazteko aukera ematen dute. - Datu eguneratuak eskaintzen dituzte eta denbora-aldagaien artean alderaketak egiteko aukera ematen dute.	Denboraren eta baliabideen kontsumo handiagoa dakarte.

Informazioa biltzeko teknikak udalerrian **lankidetzan aritzen diren pertsonen eta kolektiboen** zuzenduta daude, haur eta nerabeen beharrak zein diren jakiteko eta udaleko jarduerarekin lotura duten arloetan hobetzeko aukerak identifikatzeko (familia, osasuna, pobrezia eta gizarte-bazterkeria, kirola, kultura, aisialdia eta denbora libre, mugikortasuna, hirigintza, parte-hartzea, etab.).

Jarraian, diagnostikoa egiteko esparruan kontsulta daitezkeen interes taldeen arteko erlazioa aurkeztuko dugu, eta beltzez nabarmenduko ditugu edozein udalerrirentzat lehentasunezkoak diren espazioak: **HPEak, ikastetxeetako ikasleak, haur eta nerabeen jarduketak egiten dituzten politikariak eta udal-teknikariak, haur eta nerabeekin lan egiten duten erakundeetako erabiltzaileak eta arduradunak, etab.,**

Kontuan hartu behar da udalerritik txikieta informazioa biltzeko iturriak mugatuagoak direla; horregatik, hobe da **zuzenean udal-arduradunei, haur eta nerabeei eta tokiko eragileei (bizilagunen elkarteak eta tokiko elkarteak, etab.) kontsultatzea**. Gainera, haur eta nerabeak udalerriko garapenean inplikatzeko onuragarria da herritarrek finkatzeko prozesurako.

Nori kontsultatu?	Non?	Zertarako?
Haurrak eta nerabeak	Haur eta nerabeek parte hartzeko organoak: Ikastetxeak; - Kirol-taldeak; - Aisialdiko elkarteak; - Haur eta nerabeei zuzendutako udal-zentroak eta -espazioak; - Udal-liburutegiak; - Eta abar.	Haur eta nerabeek gai hauen gainean duten pertzepzioa biltzea: - Hiri eremua nola baloratzen duten, aisialdia eta denbora libre, etab. - Udal-ekipamenduak nola erabiltzen dituzten; - Hainbat arlotan duten parte-hartzea, hala nola familian, eskolan, udalean; - Ongizatearen gainean duten pertzepzioa; - Hainbat arlotan hautemandako pertzepzioa: eskola, familia, kirol-zentroak, kaleak eta parkeak, etab. - Erabiltzen dituzten azpiegitura publikoen irisgarritasuna, haiei zuzendutako jardueren genero-ikuspegia (kirola/kultua, etab.). - Eta abar.
Tokiko Gobernua	Ordezkaritza politikoa: Udal-teknikariak; - Udalerritik mankomunatueta teknika; - Eta abar.	Honi buruzko informazioa jasotzea: - Udal-errola, haur eta nerabeen kargura dauden familientzako diru-laguntzak; gizarte-zerbitzuen espedienteak, udalerritik haurrei bideratzen dien aurrekontua, etab. - Haur eta nerabeei edo haien familiei bideratutako jardueren, programen, baliabideen edo zerbitzuen datuak eta erabiltzaileei buruzko informazioa (generoaren arabera, adina, dibertsitate funtzionala, jaiotzea, etab.);

Nori kontsultatu?	Non?	Zertarako?
		- Haur eta nerabeentzako udal-baliabideen eta -zerbitzuen estaldura maila, eskariaren arabera; - Udal-arloek haur eta nerabeen eta haien familien beharrei, kezkei, joerei eta aurreikuspenei buruz egiten duten balorazioa jasotzea; Eta abar.
Eragile sozialak	Ikasleen Guraso Elkarteak; - Bizilagunen elkarteak; - Hainbat arlotako tokiko elkarteak (kulturalak, kirolekoak, auzokoak, etab.); - Herritarrek parte hartzeko organoak; - Eta abar.	Eragile sozialek gai hauen gainean duten pertzepzioa biltzea: - Familiarik zaurgarrienek jasotzen duten babes eta arreta nola baloratu duten (guraso bakarrekoei, desgaitasun funtzionala duten haur eta nerabeak dituztenek, pobrezia-arriskuan edo -egoeran dauden familiek, immigranteek, etab.); - Haur eta nerabeak dituzten familientzat dauden udaleko gizarte zerbitzuekin herritarrek duten gogobetetzea; - Ondasun eta zerbitzuetara sarbide eraginkorra eta parekidea izatearekin lotutako beharrak (etxebizitza, laguntzak, kontziliazioa, etab.). - Eta abar.
Adituak	Hainbat arlotan haur eta nerabeekin lan egiten duten erakundeak; - Unibertsitateak eta ikastetxeak; - Herri-administrazioarentzako zerbitzu-hornitzaileak (haurrak eta nerabeak zaintzeko zerbitzuak); - Eta abar.	Honi buruzko informazioa jasotzea: - Udalerriko haur eta nerabeen hainbat arlotako behar eta eskubideei modu negatiboan eragiten dieten ahultasunak eta mehatxuak identifikatzea; - Udalerrian eta/edo inguruan dauden indarguneak eta aukerak identifikatzea, behar eta eskubide horiei erantzun hobea emateko; - Haur eta nerabeek eta/edo familiek aipatutako alderdi zehatz batzuetan sakontzea; - Eta abar.



- ✓ Ez da koherentea HEHk sustatzen dituen printzipioekin haur eta nerabeen errealitatea aztertzea, diagnostikoa zuzentzen zaien pertsona protagonisten ahotsa kontuan hartu gabe. Horregatik, haien parte-hartze **zuzena** (inkestak bidez, talde fokalen bidez, tailerren bidez, etab.) edo **zeharkakoa** sustatu behar da (ikastetxeen bidez, aisialdiko elkarte bidez, etab.).
- ✓ Funtsezkoa da normalean ikusezina diren edo espazio parte-hartzaileetara iristeko zailtasunak dituzten kolektiboak kontsultatzea, hala nola **haurrek eta nerabeek dituzten immigranteen familiei, guraso bakarrekoei, desgaitasun funtzionala duten haur eta nerabeei, behar bereziak dituzten haur eta nerabeei, etab.**
- ✓ Udalerriak **HNPO** badu, prozesu osoan zehar esku hartu beharko du.
- ✓ Haur eta nerabeekin batera, **familiek** eta **eragile sozialek** ere ondo ezagutzen dute haur eta nerabeen errealitatea. Horregatik, komeni da familien, aisialdirako taldeen, kirol-taldeen, gizarte-langileen eta abarren parte-hartzea izatea, inkestak, elkarriketa, eztabaida-taldeen eta abarren bitartez.

Bigarrenik, kontsulta hau egiteko informazioa biltzeko teknika kuantitatiboak edo kualitatiboak erabili daitezke, nahiz eta komeni den bietara jotzea osagarri gisa:

- **Teknika kuantitatiboak** dira aurretik ezarritako hainbat aldagai estatistikoki neurtzea xede dutenak, horretarako, datuak kuantifikatu eta emaitzak orokortu egiten dira. Teknika horien barruan daude inkestak.

- **Teknika kualitatiboak** dira ideiekin, pentsamenduekin eta kontsultatutako pertsonen pertzepzioarekin lotutako interpretaziozko informazioa bilatzen dutenak eta orokortu ezin daitezkeenak. Horien artean daude eztabaida-taldeak eta elkarrizketak.

Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak. Abantailak eta desabantailak.			
	Abantailak	Desabantailak	Teknika nagusiak
Teknika kuantitatiboak	- Herritarren sektore handi baten askotariko informazioa lortzeko aukera ematen dute. - Fidagarria denez, emaitzak beste erakunde eta ikertzaile batzuek erabil ditzakete. - Emaitzak orokortu egin daitezke.	- Datu-bilketak denbora eta baliabide gehiago eskatzen ditu. - Herritarren sektore jakin batera heldu eta orokortu ezin diren emaitzak aurkezterako garaian zailtasunak egon daitezke. - Ateratako informazioa lortutako emaitzen egiazkotasunak baldintzatzen du.	 INKESTA <i>Haur eta nerabeen lagin adierazle baten pertzepzioa ezagutzeko</i>  ESTATISTIKEN BERRIKUSPENA <i>Jasotako informazioa osatzeko</i>
Teknika kualitatiboak	- Denboraren eta baliabideen ekonomia. - Malguak dira eta hainbat alderditan sakontzeko aukera ematen dute. - Askotariko ezaugarriak eta heterogeneoak dituzten taldeen edo pertsonen iritzia jasotzeko aukera ematen dute.	- Jasotako informazioa ezin da orokortu. - Taldea gidatzen duen pertsonak edo parte-hartzaileek beraiek informazioa interpretatzerakoan joera markatu dezakete. - Aurkikuntzak berresten dituzten beste ikerketa-teknika batzuekin osatu behar da.	 ELKARRIZKETAK <i>Alderdi jakin batzuetan sakontzeko</i>  EZTABAIDA TALDEAK <i>Gogoeta kolektiboaren informazioa jasotzeko</i>  TAILERRAK <i>Alderaketa zabalaren informazioa jasotzeko</i>  DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA <i>Azterketa aberasteko</i>

Komeni da informazioa triangulatzea eta estaldura handiagoa bermatzea ahalbidetzen duten **iturriak eta teknikak uztartzea**, jakin nahi diren errealitatearen dimentsio edo alderdi guztiei dagokienez. Horretarako ikuspegi desberdinak uztartu eta faktore hauek hartu behar dira kontuan: interes-talde batzuetara sartzeko erraztasuna edo zailtasuna; kontsulta egiteko dagoen denbora; udalerrian haurren eta nerabeen parte hartzearen errotzea; eskuragarri dauden baliabide materialak eta giza baliabideak, etab. Esaterako, haur eta nerabe gutxi dauden udalerrri batean nahikoa izan daiteke eztabaida talde bat edo tailer bat sortzea, haur eta nerabe asko dauden udalerrri batean, berriz, egokiagoa da inkesta bat egitea.



- ✓ Erabili beharreko iturriak eta teknikak aukeratzerako garaian, eskuragarri dauden baliabideen eta laguntzeko eta/edo babesteko balio duten balizko aliantzen **aurretiazko azterketa** presente izan behar da.
- ✓ Hainbat teknika aplikatzeko beste batzuetarako (esaterako, elkarrizketa) baino ezagutza **espezializatuagoak** (esaterako, inkesta) behar dira.
- ✓ Ezinbestekoa da haur eta nerabeei **zuzenean** galdetzea, haien errealitatearen gaineko ikuspegia ez dadin erabat helduen ikuspegitik bideratua egon.



- ✓ Kotsultak hainbat interes talderen ikuspegia duenean, azterketa **aberastu** egiten da.
- ✓ Ikerketa-tekniketan gehiago sakontzeko, *Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (ISZ) metodologia-koadernoak kontsulta ditzakezu:*
https://www.cis.es/cis/opencm/ES/3_publicaciones/coleccion/es/metodologicos.jsp
- ✓ **1. eranskinean** kontsulta dezakezu noiz den erabilgarria teknika bat edo bestea erabiltzea, baita abantailak eta desabantailak ere.



2. PAUSOA. INFORMAZIO BILKETA PLANIFIKATZEA:

Teknikak aukeratu ondoren, informazioa biltzeko estrategia planifikatzeko eta egutegia egiteko unea izango da: Informazio-bilketak zenbat iraun beharko luke?

Erabilitako denbora aldagai askoren menpe dago: aukeratutako teknikak, eskuragarri dauden baliabideak, aurretiazko esperientzia, udalerrriaren tamaina, kontaktuen sarea, inguruko eragileekin komunikazio-bide errazak izatea, etab.

Ez da komeni informazioa biltzeko denbora gehiegi luzatzea, baina jasotako datuak bideratzeko eta prozesu parte-hartzaileak behar dituen erritmoak errespetatzeko denbora nahikoa dagoela bermatu behar da. Komeni da informazioa biltzekoaldiak **hilabete bat eta lau hilabete** bitarteko iraupena izatea, baina luzatu daiteke aurreikusi ez diren arrazoiak direla eta.

Udalerrriaren tamaina gorabehera, komeni da **plangintzaren matrizeetako** batean egin behar diren jarduketak zehaztea, modu eraginkorrean koordinatzeko eta erlazioa sortzeko:

- Zer iturri eta teknika erabiliko diren.
- Zer interes talde kontsultatuko diren.
- Zer helburu bete behar diren.
- Zer ekintza egingo diren.
- Ekintza bakoitza noiz egingo den.

Jarraian, adibide bat erakutsiko dugu:

PLANGINTZAREN MATRIZEA				
Zer iturri eta teknika erabiliko diren	Zer interes talde kontsultatuko diren.	Zer helburu bete behar diren.	Zer ekintza egingo diren.	Ekintza bakoitza noiz egingo den.
Eskuragarri dauden datuak berrikustea	Ez dagokio	Oinarrizko adierazleei buruzko datu kuantitatiboak biltzea askotariko dimentsioetarako.	- Egutegia egitea. - Udaleko sailei jardueren memoriak eskatzea. - Udal-errola kontsultatzea. - Arakatzeko eta kontsulta espezifikoak egitea EUSTATen, EINen, etab. - Beste batzuk.	2022ko urtarrila
Galdetegia	Udalerriko haur eta nerabeak	Haur eta nerabeek ongizatearen gainean duten pertzepzioa eta	- Egutegia egitea. - Inkestaren diseinua.	2022ko otsaila

PLANGINTZAREN MATRIZEA				
Zer iturri eta teknika erabiliko diren	Zer interes talde kontsultatuko diren.	Zer helburu bete behar diren.	Zer ekintza egingo diren.	Ekintza bakoitza noiz egingo den.
		hainbat arlorekiko duten gogobetetzea ezagutzea.	- Ekimena ikastetxeei aurkeztea eta lankidetzan aritzeko eskaera egitea. - Inkestak jasotzea.	




- ✓ Garrantzitsua da informazioa biltzeko egutegia bat etortzea haur eta nerabeen **ikasturtearekin**. Esaterako, oporrak garai txarra izan daitezke ikastetxeen bitartez inkesta egiteko, baina une egokia beste eragileekin tailer bat egiteko.
- ✓ Interesgarria izaten da udalerrian **dauden** topaguneak aprobetxatzea (liburutegiak, haurrentzako guneak, gazteentzako zentroak, kiroldegiak, etab.), zabalkundea errazteko eta eztabaida-taldeetan edo tailerretan parte hartzeko.
- ✓ Komeni da informatzaileei **aurretik jakinaraztea** informazioa biltzeko prozesua abian dagoela eta ekimena sozializatzea.
- ✓ Komenigarria da ahal den heinean, datu kuantitatiboen bilketa kualitatiboaren aurretik egitea. Hala, kontsultatutako pertsonei eskatu ahal izango diezu aurkitutako datuak **interpretatzen laguntzeko**.



- ✓ **2. eranskinean**, diagnostikorako informazioa jasotzeko plangintza-matrizearen adibide argiago ageri da.

2. fasea. Informazioa biltzea: Haur eta nerabeen errealitatearen zer alderdi izan behar ditut kontuan? Nola jasoko dut informazioa?

INFORMAZIOA JASOTZEKO 3 urrats egin behar dira:



1. PAUSOA. ADIERAZLEEN MULTZOA SORTZEA:

Esan dugun moduan, xedea haur eta nerabeen tokiko plana orientatzea bada, egitea komeni den diagnostiko mota dimentsio anitzeko diagnostikoa da, haur eta nerabeen bizitza-kalitateari eragiten dioten arlo guztiei buruzko datuak lortzeko.

Arlo edo **dimentsio** horiek dira gero diagnostikoaren eduki nagusia egituratuko dutenak eta datuak multzokatzen lagunduko dutenak. Horregatik da interesgarria hasieratik definitzea.



Goiko eskema adibide argia da eta erreferentzia gisa har daiteke. Gainera, nazioarteko organismoek proposatutako hainbat eredutatik sortua da (Haurren Eskubideen Hitzarmena, Garapen Jasangarrirako Helburuak, etab.). Gainera, bat dator haurren eskubideen esparruko 5 helburuekin eta GJHetan oinarritutako 17 osagarriekin. Halaber, UNICEFen Haurrekin Adiskidetsuak diren Hiriak (HAH) programaren GJHein artikulatuta dago.

Esperientzia gutxi edo baliabide mugatuak dituzten udalerriek zailtasunak izan ditzakete haur eta nerabeen bizitza-kalitateari eragiten dioten dimentsio guztiei buruzko informazioa lortzeko. Horregatik, gomendagarria da **dimentsio bakoitzaren gaineko informazioa pixkanaka biltzen hastea**, eta esperientzia lortu ahala, guztien informazioa lortzen saiatzea.

Adierazlea planaren garapena deskribatzeko, alderatzeko, azaltzeko eta aurreikusteko aukera ematen duen neurria da.

Adierazlea balekoa izan dadin, informazio fidagarria, ulergarria eta denboran zehar alderagarria eman behar du.

Datuen bilketa mugatzeko eta inbertsioa eskuragarri dauden baliabideekin proportzionala izateko, komeni da aurretik ezagutu nahi den errealitatearen alderdirik adierazgarrienei erreferentzia egiten dioten eta modu argian deskribatzeko erabilgarriak diren **adierazleen multzoa** sortzea. Hala, bilaketa datu horietara bideratu ahal izango duzu eta ez beste batzuetara.

Gainera, informazio kuantitatibo horrek aukera emango du aurrerago tokiko gobernuak haur eta nerabeen tokiko planaren ezarpenean egindako aurrerapausoak eta lorpenak neurtzeko. Hala ere, gogorarazi behar da diagnostikoak informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa izatea komeni dela.

Hurrengo taulak multzo horren parte izan daitezkeen adierazle batzuen erreferentzia orientagarria eskaintzen du adibide gisa, eta osasunaren, hezkuntzaren, familiaren eta familiako erlazioen dimentsioarekin duten lotura azaltzen du.

ADIERAZLE MULTZOA		
Dimentsioa	Zergatik da garrantzitsua dimentsio hori?	Zer adierazle formula ditzaket?
OSASUNA (3. GJH. Osasuna eta Ongizatea)	Haur eta nerabeen osasuna nolakoa den jakiteko, ohitura osasuntsua dituzten jakiteko, buruko osasuna, etab.	- Obesitatea duten 2 eta 17 urte arteko haurren eta nerabeen proportzioa. - Haurren eta nerabeen buruko osasunari arreta eskaintzeko programen kopurua. - Haur eta nerabeek ohitura osasungarriak hartzea sustatzen duten eta oztopatzen duten faktoreak. - Eta abar.
HEZKUNTZA (4. GJH. Kalitatezko hezkuntza)	Udalerriko eskola-adinean dauden haur eta nerabeen ezaugarriak ezagutzeko, hezkuntza-sistemara noiz sartzen diren eta zenbat egoten diren jakiteko, eskola-errendimendua, euskararen maila, etab.	- Hezkuntza-zikloaren arabera ikastetxeetan matrikulatutako ikasleak, 0-3 urtekoak barne. - Ikasgelako parte-hartzearekin gogobeteta dauden haur eta nerabeen proportzioa.

ADIERAZLE MULTZOA		
Dimentsioa	Zergatik da garrantzitsua dimentsio hori?	Zer adierazle formula ditzaket?
FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK (11. GJH. Hiri eta komunitate jasangarriak)	Haur eta nerabeen kargura dauden familiak nolakoak diren jakiteko, familia-erlazioak, zenbat denbora ematen duten haur eta nerabeek familian, etab.	- Eskola-eremuan haur eta nerabeen parte-hartzea sustatu eta oztopatzen duten faktoreak. - Eta abar. - Familia nuklearren pisua, gurasobakarrekoea, ugariena, berreraikitakoea, adopziozkoena, harrera-familiena, etab. - Familian igarotzen duten denborarekin gogobeteta dauden haur eta nerabeen proportzioa. - Kontziliazioa sustatu eta zailtzen duten faktoreak, eta haur eta nerabeen zaintzak etxean. - Eta abar.



- ✓ Adierazleei buruz gehiago jakiteko, UNICEFen dokumentu hau kontsulta dezakezu: *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenetik aplikagarriak diren udal-adierazleak*.
<https://ciudadesamigas.org/wp-content/uploads/2006/01/Indicadores Municipales CDN.pdf>
- ✓ GJHak eta haien helburuak ezagutzeko, hauek kontsulta ditzakezu:
 - *Nazio Batuak. Gure mundua eraldatzeko 17 helburu*.
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>
 - *UNICEF eta Garapen Jasangarrirako Helburuak*.
<https://www.unicef.org/es/unicef-y-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible#sdg3>
- ✓ Gida honen **3. eranskinean** dimentsio bakoitzerako adierazleen adibideak dituen taula konplexuagoa dago.



2. PAUSOA. DAGOENEO ESKURAGARRI DAUDEN DATUAK BILTzea:

Bigarren mailako iturrien bidez datuak mapatu eta jasotzea da abiapuntua Adierazle horien datuak non eta nola aurki daitezke? Udaleko sailek egiten dituzten **udal-errolak** eta urteko **memoriak** dira udal guztiek udalerriko haur eta nerabeei buruz dagoeneko badagoen informazioa bildu ahal izateko kontsultatu beharreko dokumentu nagusiak.

Urrats hori gakoa da, datuak modu nahiko errazean lortzeko aukera ematen baitu, diagnostikoa perfilatzen joateko, eta, halaber, zer informazio ez dagoen eskuragarri eta lehen eskutik jasotzea komeni den identifikatzen laguntzen du (haur eta nerabeei zuzenean kontsultatuz, familiei, profesionali, etab.).

Era berean, estatistika-zerbitzu ofizialak ere izan daitezke kontuan (EUSTAT, EIN, etab.); udalak berak, beste erakunde batzuek edo erakunde pribatuek berriki argitaratutako ikerketak, etab.



- ✓ Dagoeneko eskuragarri dauden datuen bilaketan (bigarren mailako iturriak), komeni da **udaleko sail guztiak inplikatzeko (politikariak eta teknikariak barne)**, bai haien memorieta sartzeko, bai informazioa biltzeko prozesuak zeharkakoak egiteko.
- ✓ Iturriak eta datuak aukeratzeko garaian zalantzak izanez gero, aukeratu datuen **bereizketa** (adin-tarteen arabera, sexua, jatorria...) eskaintzen duten iturriak; datuak aldizka eguneratzen dituzten iturriak, denboran zeharreko serieak eduki

ahal izateko; datu berrienak dituzten iturriak; udaleko edo eremu txikiagoko datuak eskaintzen dituzten iturriak.

- ✓ Oso posible da datu batzuek **udalerriko herritarrei** erreferentzia ez egitea, eskualdeari, lurraldeari edo erkidego osoari baizik. Ez baztertu datu horiek, erabilgarriak izango dira beste aukerarik ez dagoenean erreferentziatzat hartzeko.
- ✓ Gogoratu memoriak zuretzat adierazgarria izan daitekeen daturik ez dutenean, dagokion sailari **berariazko eskaria** egin diezaiokezula. Halaber, estatistika-zerbitzuei eta organismo publikoei berariazko eskaria egin diezaikezu.



- ✓ Gida honen **3. eranskinak** taula bat du eta datuen adierazleak eta horiek lortzen laguntzen duten bigarren mailako iturri nagusiak zerrendatzen dira bertan.
- ✓ **4. eranskinak** kontsultatzeko interesgarriak izan daitezkeen estatistika-zerbitzuen, behatokien eta inkestaren zerrenda du.



3. PAUSOA. KONTSULTA ZUZENEN BITARTEZ DATUAK JASOTZEA:

Urrats hori **konplexuagoa eta luzeagoa** izango da diseinuaren fasean hautatutako tekniken arabera eta dimentsio bakoitzarentzat zehaztutako datuen adierazleen arabera.

Jarraian, teknika bakoitzaren bitartez informazioa aplikatzeko eta biltzeko jarraibide eta gako nagusiak erakutsiko ditugu:

INKESTA:

Lehenik eta behin, inkesta erantzutea gustatuko litzaigukeen pertsonen gutxieneko kopurua (**lagina**) kalkulatu behar da, emaitzak biztanleria osoarentzako adierazgarriak izan daitezen. Kopuru hori biztanleriaren tamainaren arabera izango da, baina ez du erlazio proportzionalik. Orientazio gisa, tamainak hauek dira:

Udalerriko haur eta nerabeak (Unibertsoa)	Adierazgarria izateko gutxieneko erantzunen lagina
100	80
250	152
500	218
1.000	278
5.000	357
10.000	370

Oharra: laginaren tamaina kalkulatu dago emaitzak estatistiko adierazgarriak izan daitezen, % 95eko konfiantzarekin eta % 5eko errore-marjinarekin.

Gero, **galderen** multzo bat planteatu behar da (gogoratu adierazleen multzoa) eta **gaiaren arabera ordenatu**. Galderak itxiak (aukeratzeko erantzunekin) edo irekiak (pertsonen erantzunak arrazoitze aukera emateko) izan daitezke. Nolanahi ere, errazak eta ulergarriak izan behar dira.

Azkenik, nahi den laginaren antzeko pertsona kopuruak erantzutea lortu behar da eta erantzun guztiak **datu-base** batean biltegiratu behar dira.



- ✓ **Laginaren** tamaina azkar kalkulatzeko, hauek kontsulta ditzakezu:
 - Calculator: <https://www.calculator.net/sample-size-calculator.html>
 - Raosoft: <http://www.raosoft.com/samplesize.html>

- ✓ Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) pilula erabilgarri batzuk eskaintzen ditu *estatistikak eta interpretazio estatistikoa egiteko*: https://www.ine.es/explica/explica_pasos.htm
- ✓ Doako eta ordainpeko baliabide asko daude webgunean *inkesta birtuala sortzeko*, besteak beste:
 - GoogleForms: <https://www.google.es/intl/es/forms/about/>
 - Encuestafácil: <https://www.encuestafacil.com/portada.aspx>
 - SurveyMonkey: <https://es.surveymonkey.com/>
- ✓ **5A eranskinean**, gomendio gakoak ageri dira, baita inkestaren adibide eta eredu batzuk ere.

EZTABAIDA TALDEAK:

Lehenik eta behin, iritzia trukatzeko sustatuko duten **galdera** erabilgarriekin gidoia egin behar da (gogoratu adierazleen multzoa, lagungarria izan daiteke). Gainera, **material osagarriak** prestatu ahal izango dira (orriak, horma-irudiak, arbelak, etab.), eztabaida errazteko.

Komeni da saioak gutxi gorabehera ordubete eta 2 ordu artean irautea, eta partaideen kopurua 6-10 artekoa izatea.

Gerora, dinamizatzailerak ideien trukea sustatuko du eta parte-hartzaileen arteko elkarriketa estimulatuko du. Ahaleginduko da inor ez baztertzen, taldea galderen bidez gidatuz eta gogoetarako ariketa osagarriak planteatuz. Halaber, komunean jarriko ditu, ekarpenak biltzeko.



- ✓ **5B eranskinean**, gomendio gakoak ageri dira, baita eztabaida-taldeen adibide eta eredu batzuk ere.

ELKARRIZKETA:

Lehenik eta behin, aztertu nahi diren gaietan sakontzen lagunduko duten **galdera** erabilgarriekin gidoia egin behar da (gogoratu adierazleen multzoa, lagungarria izan daiteke). Planteatutako galderak “zergatik”, “nola” eta “zertarako” ulertzen lagundu behar dute, fokua ideia berrien bilaketan eta aztertzen ari diren alderdiak osatzen dituzten gaietan jartzen laguntzeko.

Komeni da elkarriketa sakonak banakakoak izatea (nahiz eta batzuetan bi pertsona batera elkarriketatzea baloratu daitekeen, adibidez) eta iraupenik egokiena ordu eta erdi ingurukoa da.

Gero, elkarriketatzailerak galderak egingo ditu eta modu aktiboan entzuten duen bitartean, **hitz egiten** ari den errealtatearen gainean elkarriketatuak duen ikuspegia ulertzen ahaleginduko da.



- ✓ **5C eranskinean**, gomendio gakoak ageri dira, baita elkarriketen adibide eta eredu batzuk ere.

TAILERRAK:

Lehenik eta behin, iritziak trukatzeko eta ideiak elkarlanean sortzeko egokienak diren **dinamikak** diseinatu behar dira. Dinamika horiek tentuz prestatu eta artikulatu behar diren **metodologiak**, **materialak** eta abar behar dituzte ezarritako helburuak lortzeko.

Tailerretan eztabaida-taldeetan baino pertsona gehiagok har dezakete parte, elkarriketara eta debatera hain bideratuta ez daudelako; hain zuzen ere, sormenaren, jokoaren, inspirazioaren eta abarren bitartez ideiak sortzera daude bideratuta. Partaideen kopurua lotuta dago balizko dinamizatzailen kopuruarekin, eta hainbat azpitalde sor daitezke une batzuetan bereizita lan egiteko eta gero elkartzeko, adibidez. 6 partaideko dinamizatzailerik bat izatea ratio egokia izan daiteke.

Horrelako saioek iraupen luzeagoa izan dezakete (3 edo 4 ordu, adinaren eta partaideen arabera), betiere atsedena egiten badira. Tailerra egiteko lekua estatikoa izan daiteke (udal-eraikin bateko aretoa, ikastetxe, ekitaldi-aretoa, plaza), edo dinamikoa (ibilaldi gidatua, irteera udalerritik, etab.).

Gero, dinamizatzailerik taldea **gidatzeaz** arduratuko dira, diseinatutako dinamiken bitartez helburua lortzeko. Horrelako tailerren helburuen artean egon daitezke honako hauek: jolaserako espazio berria diseinatzeko proposamena egitea; hiri idealaren gaineko ideiak jasotzea; ezinegonei irtenbidea emateko formularik onenei buruzko gogoeta egitea; etab.

Garrantzitsua da ez ahaztea diagnostikorako tailerrean sortu nahi den informazioa aprobetxatzeko, bilketari arreta jarri behar zaiola. Eztabaida-taldeetan ez bezala, ez da bideragarria izaten tailerretan grabatzea; hortaz, ia ezinbestekoa da **parte hartu gabe behatzaile** arituko den pertsona bat izatea.



- ✓ **5D eranskinean** tailerren gomendio gakoak eta dinamikoak ageri dira, baita tailerren adibideak ere.

INFORMAZIOA BILTZEKO PROZESUETAN HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO GOMENDIO GEHIGARRIAK:

Francesco Tonuccik, haurren parte-hartzean adituak, “Haurren Hiria” proiektuan gogorarazten du haur eta nerabeen parte-hartzea **tokiko gobernuaren egiazko esku-hartzea** izan behar dela, eta haur eta nerabeek beren beharrak eta lehentasunak modu naturalean eta zuzenean adieraziz hartu behar dutela parte, are, baita prozesuaren diseinuan eta proiektuaren kudeaketan ere.

Hala ere, udalerririk guztien errealitatea ez da berbera. Batzuek eskarmentu handiagoa dute eta haur eta nerabeek parte hartzeko espazioak instituzionaltzeko aukera izan dute; beste batzuk, ordea, prozesu horren hasieran daude oraindik. Horregatik, teknika bat edo bestea ezartzeko, funtsezkoa da honako hau kontuan izatea:

- **Haur eta nerabeei zuzendutako prozesu parte-hartzaileak inoiz egin ez dituzten udalerririk.** Gomendagarria da haurren eta nerabeen parte-hartze prozesua lehen aldiz gauzatzen duten udalerririk helburu errealistak eta asmo txikikoak izatea. Haur eta nerabeen parte hartzeko kultura tokiko agendan finkatzea denbora behar duen prozesua da, eta komeni da informazioa biltzeko iturririk egokienak eta baloraziorik onena jasotzeko zein diren esperimenduak eta ebaluatzea.
- **Haur eta nerabeei zuzendutako prozesu parte-hartzaileak garatu dituzten udalerririk eta Haur eta Nerabeek Parte Hartzeko Organorik (HNPO) ez dutenak.** Kasu honetan, gakoa izango da prozesu

parte-hartzaileak sustatu dituzten arlo eta erakundeen esperientzia ezagutzea, baita ondoen eta okerrekin zer arlo funtzionatu duten eta aliantzarik arrakastatsuenak zein izan diren arakatzea ere.

- **Haur eta nerabeei zuzendutako prozesu parte-hartzaileak garatu dituzten udalerrriak eta HNPO dutenak.** HNPOak haur eta nerabeek parte hartzeko tokiko erakundeak dira, kontsultarako izaera dute, informatiboa eta udal-eremuan aholkularitza ematen dute. Funtsezko zeregina izango du, lehen eskutik emango baita haur eta nerabeek udalerrria ikusteko moduaren gaineko informazioa, etaosatzen duten pertsonen prozesu parte-hartzailearen sozializazioari ekarpena egin eta informazioa biltzeko erraztu dezakete.



